

FEMINISTAK ETA SINDIKTOAK ZAINZAK JORRATZEN

Martxoaren 8 honetan, era batean edo bestean Euskal Herri osoan, eta ardatz gisa Bizkaian, emakumeei derrigorrezko zaintzari intsumisiorako deia agertu da berriro ere, ez baita berdintasunik egongo zaintzeko behartuta jarraitzen badugu. Ez da gai berria, 93an antzeko kanpaina bat burutu zen ere, eta, 70 hamarkadaren amaieran, Bilbon martxoak 8 lehenbizikoz ospatu zenean, manifestazioa poliziak zapuztu zuen “haurtzaindegiak nahi ditugu” oihua entzuten zelarik (garai hartan Haur Eskola izena ez zegoen oso zabalduta.)

30 urtetan zeharo aldatu da gure gizartea zentzu askotan, baina zaintzak direla eta emakumeek hor darraie.

Haurrak direla eta, inork ez du adierazten, lehen egiten zen bezala, 4 edo 5 urte bete arte umeek amarekin egon behar dutenik eta Haur Hezkuntza eskubide unibertsaltzat aitortuta dago. Hala ere, 2 urtetik beherakoentzako plaza kopurua oso urria da, %30era ez da iristen, kuotek egoera sozio-ekonomiko larriena pairatzen dutenak kanpoan uzten ditu, eta Hezkuntza Sailaren politika tarte hau ikastetxe pribatuen eskuetan uztearen aldekoa da, argi eta garbi.

3 urtetik gora eskolarizazioa bermatuta dugu, baina ordutegi, egutegi eta prestazioen diseinuaren oinarria gremio batzuen zeregina gidatzen duen berbera da: etxean beti inor dagoela suposatzen da.

Lehen zikloetan eskola ordutegiak malguak izan daitezten eta, nagusiagoentzat eskolaz kanpoko ekintzak ugaritu daitezten argi eta ozenki eskatzen ari da gizartea. Eskaera honek, berriz, oihartzunik ez du hezkuntzako arduradunengan; behar hauentzako erantzuna udalek ematen dute neurri batean, tokiz tokiko udalaren ezaugarrien arabera, eta konponbide indibidualek bestean.

Norberak topa ditzaken soluziobideak aski ezagunak dira: eskolaz kanpoko ekintzak erosi, pertsona bat kontratatu (Emakundek egindako ikerketa baten oinarrituta Etxeko Langileen Elkarteak plazaratu dituen datuek irtenbide hau nekez defendatu daitekeela argi adierazten dute), edo “senide bat arduratu dadila”. Senidea honen arduradun bada, emakume izango da, gizonen partaidetza arlo honetan izugarri hazi den arren (Otik abiatzen ginen).

Beste aldetik, familia zabala desagertzean elkarbizitza unitateetako kide kopuruak behera egin du, gainera biztanle gehienak hiri handietan bizi dira, non umeentzako bakarka ibiltzeko autonomia guztiz murriztu den. Datu hauek bilduta zera ondorioztatzen dugu, 30 urteetan eman diren aldaketek ez dira nahiko izan funtsezko elementu bat aldarazteko: amatasuna eta emakumeek duten hainbat nahi profesional edota sozial, bateraezinak dira.

Instituzioak prestatzen ari diren II Familia Planak hemen aipatutako elementu batzuk zuzendu ahal ditu, borondaterik dagoen une honetan ez dakigu.

Umeak aipatuta, handia da benetan beste adinetakoen zaintza esparruan suertatu den beharren hazkundera. Alde batetik, gero eta urte gehiago bizi gara, eta edadetuen artean mendekotasun egoerak ugari dira; beste aldetik, aurreko hamarkadetan hilgarriak ziren hainbat gaixo eta istripuetatik bizirik ateratzen gara. Beharrak errekursoak baino arinago hazten dira, zalantzarik gabe. Estatu espainolean mendekotasun egoera larria sufritzen dutenetako 3tik batek bakarrik jasotzen du nolabaiteko zerbitzua, eta mendekoen %77a senide baten kargu daude. Zaintzaile eta senide hauek, jakina, emakumeak dira %83ko portzentajearen. Zaintzaileen %80ak ez du enplegurik.

Badago ere gai honen inguruan azaleratu nahi dugun beste ikuspuntua: eguneroko bizitzan beste pertsona baten laguntza behar duten pertsona horiek, emakumeak direnek gehien bat, eskubideak urratuak dituzte, askatasuna mugatua. Gutxitasun funtzionala

izateak ez dakar, berez, familian bizitzearen derrigortasuna, ezta bizitza proiektuak garatzearen ezintasuna; inguruak eta inguruko errekurtsuak bermatuko dituzte pertsona hauen eskubideak edo, aldiz, zapalduko dituzte.

Argi dago, beraz, derrigorrezko zerbitzu militarra ez bezala, zaintza lana ezinbestekoa dela gure gizartean. Honetaz jabetzeko, baino, zentro espezifikoetara jo behar dugula dirudi (eskoletara, egoitzetara, eguneko zentroetara...), kaleak, lan eta aisialdirako tokiak, komunikabideak eta ustezko debate handiak beste nonbaitera begira daude eta; publiko deritzogun arloak autonomia inoren beharra ukatzearekin identifikatzen du, besteen beharra ezkutatu beharreko akatsa dela sinestarazi nahi dugu, errealitateak kontrakoa adierazten badu ere. Pertsona guztiok bizitzan zehar mendetasun egoeran aurkitzen gara une batean zein bestean, gure arteko harremanen bidez, hain zuzen ere, garatzen dugu gure autonomia.

Gizarte honek menpekotasun egoeran dauden pertsonen hiritartasun eskubideei uko egiten badie; emakumeei leporatzen badie zaintza lan osoa hau existituko ez balitz bezala; balizko konponbidetzat baldintza ezin kaxkarragoko emakume etorkinen kontratazioa bultzatzen badu; txikitzen ari den gizartea dugu hau.

Halaber, sindikalismoak langiletzat emango balu soilik unean unean ari den biztanleriaren sektorea, lan merkatuan era prekarioan sartzen direnak lehentasunen artean kokatuko ez balitu, lan merkatu horretara sartzerik ez dutenak ahaztuko balitu, "pertsona langilea = bere lanetik kanpo erantzukizunik eta beharrianik gabeko gizona" ekuazioa kuestionatuko ez balu, sindikalismo horrek emantzipaziorako tresna izan beharrean mafia bihurtzeko arriskua luke

Arrisku hauek ekiditeko Mendekotasuna Atenditzeko Euskal Sistemaren Aldeko Plataforman ari gara, ia urte betez, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, Ermuko Emakumeen Asanblada, Etxe Langileen Elkarte/ATH-ELE, Argitan (Barakaldo), Basauriko Emakumeen Taldea, Plazandreok, eta sindikatu hauek: CCOO, CGT, ELA, ESK eta STEE-EILAS.

Arantza Fernandez de Garaialde, STEE-EILASeko kidea